

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko otsailaren 20a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Lizarra • Jimeno Juriorekin herriko kaleak ezagutzeko aukera.
Idoia Salsamendi • Kirola eta psikologia uztartzeko lanean serio.

Dagoeneko joanak ditugu Nafarroako hainbat tokitako inauteri egunak, baina Hausterre eguna hurbildu ahala, oraindik ere badu non ibili festazaleak. Erriberako hiru hiritan gaur hasiko dira Inauterietako ospakizunak, hein handi batean ezezagunagoak badira ere, badute tradiziorik.

Erriberako Inauterietan barna



Betelu. Errekurtso ugari zaharren egoitzaren aurka

Inguruko herriek eta zenbait bizilagunek auzitara jo dute

Larraun eta Leitzako udalek errekurtso bat aurkeztu dute, eta Lekunberrikoak, berriz, alegazioa. Zaharren egoitzarako Beteluko alkateak balio publikokoko izendatu dituen lurren jabeek ere errekurtsoa jarri duten neurri horren aurka.

ZAHAR ETXE BAT BEHAR ZELA eta, bere garaian Leitza, Larraun, Betelu eta Lekunberriko proiektu bana aurkeztu zuten Nafarroako Gobernuak. Lekunberriko azken momentuan bertan behera utzi zuen bere egitasmoa, eta Larraungoaren aldeko jarrera azaldu zuen. Araizkoak ere gauza bera egin zuen Betelukoarekin. Nafarroako Gobernuak, hasiera batean, herrien arteko adostasuna eskatu zuen, denen artean proiektu bakar bat hauta zezaten. Baina, zenbait bileraren ostean, nabarmen geratu zen akordio hori ezinezkoa zela. Udal bakoitzak berera eraman nahi zuen zaharren egoitza. Akordiorik ezin zela lortu ikusirik, Gobernuak Ongizate Sailera jo zuten, hark aukera zezan.

Ongizate Sailak, azaroaren 11n, Beteluko egitasmoaren alde



Beteluko Soravilla hotela izandakoan egin nahi da zahar etxea.

● URKO ARISTI

egin zuen, herri horretan zeuden ur termalek abantaila handia ekartzen zutelakoan. Gainontzeko udalek, erabakia ere ez zutelako, erabakiarekin ez zutelako ados agertu bazuten ere, orduan ez zuten bestelako erabakirik hartu. Orain, ordea, bai. Larraungoa izan zen errekurtsoa aurkeztu zuen lehena. Pedro Manuel Barberia Larraungo alkatearen esanetan, «Gobernuak azaldutako argudioek ez dute

inongo zentzurik. Gure proiektuak baldintza guztiak betetzen zituen».

Lekunberriko Udalak, berriz, ez du uste zaharren etxerako kokapen egokiena aukeratu denik, eta benetako arrazoiak beste batzuk ez ote diren susmoa du. «Beteluko proiektua ez da batera egokia. Beste bietako edozeinek erantzun hobea ematen die alderdi honetako zaharren

beharrei», dio Jose Maria Aierdi alkateak.

Leitzakoa izan da ezadostasuna ofizialki azaldu duen azken udala. Urtarrilaren 31ko udalbatzarrean, Eak baiezkota eman zion errekurtsoari, HBk abstentziora jo zuen, eta Union Independiente Leitzarrakoak ez ziren izan. Alkatearen hitzetan, «adlerazi zizkiguten akats guztiak konpon daitezke, eta beste zenbait aldetatik

ikusita, gure egoera hobea zela ezin ukatu». Ongizate Sailaren arabera, Leitzak aurkeztutako asmoan zahar egoitza handiegia zen, akats arkitektonikoak zituen, eta toki gutxiegi zuen.

Jesus Gonzalez Beteluko alkaterentzat, «Beteluko zahar etxearen aurkako kanpaina bat da, eta bertan, taldearen buru, Jose Mari Aierdi dugu. Demagogia eta oportunitate gutxiago eskatuko nieke denei, gure zaharrentzat hain beharrezkoa den egoitza kolokan jartzen ari baitira. Mindurik dauden ume txikiak bezala jokatu beharrenean, laguntza eman behar harko lukete, herriotako zaharren onerako ere izango baita egoitza». Baina ez kanpoan bakarrik, herrian bertan ere badu aurkaririk Beteluko

Udalak. Duela hilabete, hiru zinegotzik dimisioa aurkeztu zuten. Eta orain, berriz, egoitza egiteko behar diren lur sailen jabeak aurka ditu. Izan ere, dagoeneko Nafarroako Aldizkari Ofizialen agertu moduan, Udalak balio publikokoko izendatu ditu. Bederatzi herritarren lur sailak daude jokoan, eta horietatik seik aurkeztu dute errekurtsoa. Alkateak, ordea, espekulazioa geldiarazi behar dela dio, behin eta berriz.

→ Urko Aristi

xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



inauteriak magikoak dira. Sotana beltza soinean eta errosarioa eskuetan paratzean, buru gainean trikornioa sentitzean edota hippyen porroa eskutik eskura pasatzean sentsazio bera sumatzen da, bizkarrezurrean beheitik goiti datorren armiarmaren kilika. Gure fantasia ezkutuenei bide ematen diegu, aurreko urtetik gordeta egon diren traste zahar eta jantzien azpian edozer gauza egiteko inmutate osoa izanen bagenu bezala. Nortasunaren transformazio honek dakarkit niri behinik behin, mozkorraldirik onena, amets eta fantasien mozkorraldi lizuna, bukatuaren pena bakarrik uzten duena bestondo gisa; baina ondorena luzea da, edabe magiko horretatik ez baita hurrengo urtera arte edaten.

Armiarmaren kilika

Lesakan badago egun bat berezia dena, zaku zahar eguna. Tiikitatikan musika aditzearekin batera emozionatu egiten naiz, baina beldurra ere orduan hasten zait. Belar idorrezko zaku mugikor horiek, zapi zuria zuloetatik bi begi basatik kanpora atera nahi duten bitartean, ederki astintzen dute pioxontzia edozeinen bizkarrean. Kamaleoiaren begiak eta katuaren zaulitasuna beharrezkoak dira, edonondik ateratzen baitira zaku zaharrak, segundoro bat klonatuko baltz bezala. Aurten desberdina izanen da. Emozioa hil arte sumatuko dudala badaikit, baina aurten behintzat ez dut beldurrik izanen, alderantziz, ni izanen naiz zaku zahar horietako bat. Orain dela urte batzuk arte, bortz bat guti goiti be-

heiti, ez zen emakumerik ateratzen, gizonen gauza zen. Goititik behitiraino tapatuak doazen arren, zapela buruan, zapi xuria aurpegian eta izenak dioen bezala belar idorrez beteriko zaku zaharrak soinean, pertsonaia horien identitate sexuala inork ez zuen zalantzan jarri: gizonak ziren. Baina neska gazte batzuk egia «absolutua» desafiatu zuten eta aunitzen harridurarako ia iskanbilarik gabe dihardute gaur arte. Zaku zaharren mozorroa utzi duena, ordea, zenbait gizon izan da, eta ez ohiturak eskubideekin adiskidetzen ari direlako, beraien maskulinitatea arriskuan ikusi dutelako baizik; beraien nortasunaren zerizana, beraien altxor preziatuena da dudarik gabe mindu zaiena.

Sakana

Inauteriak
non-nahi
egunotan

SAKANAKO ZENBAIT HERRITAN inauterietan murgilduko dira egunotan. Gaur Irurtzunen hasiko dira, arratsaldeko 15:00etan eginen den haur desfilearekin. Igandean, berriz, arratsaldean haurren inauteria ospatuko da, gogoz, Sakanako gaintzako herrietan. Eta asteartean, ohi denez, tokian tokiko inauterietako pertsonaiak aterako dira: Altsasuko momotxorroak, maskaritak eta sorginak; Urdiaingo Mantagunako momoxarro txikia, handia eta lastaro zaharra; Olaztiko bai-zaiak, basozainak, auntzaiak, zamar-txikia eta neskak; Arbizuko aitun handia, amin txikia eta txatxarrak; Unanuko mamuxarroak eta muttua, eta Ihabarko aitezarko, landarra, ninia, moxorroa eta hartza. Altzinean esan bezala, Sakanan inauteriak ospatzen lehena Irurtzund da. Gaur arratsaldean Txorongo txarangarekin mozorro kalejira eginen dute. Ondoren, Miel Otxin erreko da, eta 18:00etan, pilotaleku estalian, txistor jatea izanen da.

Altsasun, berriz, igandean hasiko dira inauteriak, haurrentzako antolatutako diren ekitaldiekin. 18:00etan txokolate jatea izanen dute, eta momotxorren dantza eginen da Foruen plazan. Dena den, asteartea dute egun handia. Puska biltzean jasotako jakiekin merendua eginen da 18:00etan, udaletxeko lorategian. Ordu eta erdi geroago, inauterietako txaranga herriko karriketan ibiliko da. Motxorren dantza behin eta berriz errepikatuko da Foruen plazaraino egiten duten ibilbidean. Gauz Sakanako trikitilarien doinuak entzuteko aukera izanen da, goizaldeko 02:00ak arte. Bestalde, otsailaren 28an koadrilen inauteriak ospatuko dira Altsasun. Eguerditik hasi eta gaua arte, mozorren kalejira izanen da Txorongo txarangarekin. Ondoren dantzaldia izanen da, Lisker taldearekin.

→ Amaia Amilibia

Lizarra • Herriko kaleak
ezagutzeko aukera

Jimeno Jurioren 'Lizarra eta bere kaleak' liburua aurkeztu zuten atzo

Lizarrako kaleak eta bazterrak ongi ezagutzeko aukera eskaintzen du Jose Maria Jimeno Jurio historialariak egin duen *Lizarra eta bere kaleak* liburuak.

JOSE MARIA JIMENO JURIO HISTORIALARIAK beste lan bat gehitu dio duen ikerketa bilduma oporari. Atzo arratsaldean Lizarrako La Bota elkarteak *Lizarra eta bere kaleak* liburuak aurkeztu zuen. Argitalpena elkarlanean kaleratu dute Altafalla Tafallako kultur taldeak eta La Bota elkarteak. Historialariak liburuak 1990ean idatzia bazuen ere, arazo ekonomikoak direla medio, orain arte ez du argia ikusi. Egileak berak dioenez, Lizarrako kale-izendegia da liburuak, alfabeto ordenan sailkatua. «Lanak kale bakoitzaren ezaugarriak, historia, denbora iragan ahala izan dituen izen aldaketak, eta eraikin historikoak bildu ditu. Irakurleak bertako kaleen izenak zeri dagozkion eta nondik datozen jakiteko egin dute».

Jimeno Jurioren iritziz, Lizarra, mende honetan zehar ez ezik, liburuak idatzi zuenetik ere asko aldatu da. Hori dela eta, baliaga-



Navarrerria kalea da Jimeno Juriok sailkatu dituenetako bat.

• KRISTINA BERASAIN

ria da gertatu diren aldaketak ikusteko eta antzemateko. «Azken zortzi urteetan etxe batzuk desagertu egin dira eta beste asko eraiki. Adibidez, garai batean oso garrantzitsua zen herriaren sarreran zegoen zurratze lantegia eta Hilobi Santuko eliza desagertu egin dira. Industrialdean eraikin berriak egin dira... Beraz, herriak izan dituen aldaketak nabari ikusiko ditu irakurleak», gaineratu du. Ildo bere-tik, kale batzuk hutsik gelditzen ari badira ere (Navarrerria, San Juan eta San Miguel) Lizarrak

kale eta eraikin garrantzitsuenak ongi gorde dituela uste du iker-tzailleak.

Bertakoa informatu

Lizarra eta bere kaleak liburuarekin egilearen helburua bertakoa informatzea izan da. Jimeno Jurioren ustetan lana, batez ere, lizarratarrentzat da baliagarria. «Jendeak ez du informaziorik bizi den herriko kaleen izenen esanahiaren inguruan. Ez du ezagutzen ondoan dituen izenen jatorria eta iturria, eta nik informazio hori eskura jarri diot». Era bere-

an, egin dituen toponimia lan ugari gehitu behar zaio liburu hau. Historialariak dagoen toponimiari beste lan bat gehitu nahi izan dio, baina, beti ere, azalpen historikoak emanez. Guztira, plazak barne, 156 kale sailkatu ditu.

Jimeno Juriok, liburuaren alde didaktikoa ez ezik, berak

esandakoak ilustratu dituzten Lizarrako kaleetako argazkiak nabarmendu ditu. Domingo Llauro lizarratarren artxibategitik eskuratu ditu. Llaurok urte mordoska darama joan den mende bukaerako eta XX.aren hasierako hainbat kale eta eraikinen argazkiak biltzen, eta historialariaren lana ilustratzeko aproposak izan dira. «Garai hartako eta gaur egungo aldaketak ikusteko egokiak dira argazkiak, balioitsuak izan zaizkit oso nire sailkapenerako. Gainera, horri herriaren planoak gehitu zaizkio, Lizarratik barna ibiltzeko aproposak kanpotarrentzat», bukatu du.

→ Irene Arrizurieta

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

'Ttipi-ttapa' Senperen, Senpere 'Ttipi-ttapan'

Ttipi-ttapa hamabostekariko azken zenbakiak Senpereko (Lapurdi) herriari tarte berezia eskaini dio. Joxe Manuel Irigoienek sinatu artikulua bidez, hango berriak jasoko baititu aldizkariak aurrerantzean: «Senpereko Oxtikenekoak elkarteak eskaturik eta haren sustenguari esker, *Ttipi-ttapa* Senpereko etxe guzietarat igorria izanen da bi hilabetez bederen senpeter guziekin al-dizkari hunen berri izateko gisan. Gero, *Ttipi-ttapa* hartzen segitu nahi duen senpeterak aski izanen du aldizkari hunekin batera hartuko duen papera Oxtikenean tur-natzea lehenbailehen. Manera hortan, erre-

pustak bilduz jakinen da xuxen nork nahi-ko duen irakurri *Ttipi-ttapa*».

«Horrela, bada, Oxtikenekoak elkarteak elkarlanean hasi da *Ttipi-ttapa* aldizkariarekin, Senpereko berriak bilduz eta publizitadea bilatuz han eta hemen. 'Guhurrek euskarazko aldizkaria sortzeko asmoa ginuen, baina ez ginuen ahal handirik gure asmoa gauzatzeko', diote Joana Mendiburu eta Franck Dolosor, elkartearen ordezkariak».

Herria astekariek, bestalde, Baionako Euskal Erakustetxea du apagaik azken zenbakian: «Zortzi urte eta erdi badu orain hertsirik dagoela Baionako Euskal Erakuste-

txea! Aspalditik errana zuten berrituko zela bainan egitekotan botere publiko guzien laguntzarekin. Horra joanden asteen bi hitzarmen izenpetu dituela Baionako hiriak gobernua eta Kontseilu Nagusiarekin en-gaiamendu publikoak segurtatuz». Orain arte Dagorretenea deitu etxean zen euskal erakustetxe hori aterbetua. Urte luzeak igurikatuz Baionak erosi ahal izan ditu haren gibelean diren beste bi etxe, Seguin eta Marsan deituak. Hiruak batean hartuz pentsatua da euskal erakustetxe berria. Hargatik, zahar berritze obrak egiteko denboran Dagorretenea hustua dute osoki».

Erriberan ere inauteriak

Tuteran, Cintruenigon eta Cascanten gaur hasiko dira aurtengo inauterietako ospakizunak

Nafarroako hainbat tokitako inauteri egunak joan diren arren, Hausterre eguna hurbildu ahala, oraindik ere geratzen da zer eta non jostatu. Erriberako hiru herritan, Tuteran, Cintruenigo eta Cascanten, gaur hasiko dira aurtengo inauterietako ospakizunak, berezko izaera duten hiru pertsonaiaren eskutik.

BALDIN ETA EUSKAL HERRIKO hainbat eta hainbat inauterietako pertsonaiak arras ezagunak gertatzen direla esan badaiteke ere, ezin da ber gauza esan Nafarroako Erriberako inauterietan ateratzen diren pertsonaiei buruz. Jakina, hegoaldeko lautada honetan, gutxi dira orain arte gorde diren eite zaharrek pertsonaiak, eta txikia dateke, ardilarruz, adarrez eta odolaz, zintzar hotsetan murgildurik dagoenari Ebroren ibalbazterreko pertsonaia xume horiek sortaraz diezaketenen erakarpena. Halaz guztiz, beren xalotasunean halako xarma berezia badute.

Herri batzuetan aipamenak baizik ez dira geratzen behialako inauteriak zitezkeenari buruz. Pedro Arellanok 1927.eko *Revisita Internacional de Estudios Vascos* aldizkarian, Abiltasko estera-dunen herri eman zuen. Aurreko mende bukaeran artean ateratzen bide ziren pertsonaiok. Estera edo zerria piltzarrez zein zaku zaharrez mozorroturiko pertsonaiak ziren; aurpegia beltzurik eta erratza eskutan heldurik, edozeini totoak eskaintzen zizkieten, eta, zenbaitetan, goxokiak eskatzera ausartzen zitzaizenei, musuarekin igurtziz, zikintzen zituzten. Goizuetako ikazkin zahagidunak egun dagien antzera. Abiltaskoa ere pliegoaren dantza famatua da, arestian bertako dantza taldeak berreskuratu zuena, eta Claude Gaignebet inauterien ikerleak bere 1974.eko tesian *Le carnaval: essais de mythologie populaire* (Inauteria: herri-mitologia saioak) argi zioen bezala, kandelariako inaute-eginkizunekin lotu behar da. Luis Gil Gomez tuterarrak



aspaldian Corellako inauterien berri eman zigun. Hor ere, goxokiak banatzen zituzten maskak ateratzen ziren, alabaina, goxokiz gain, bestelako gauzarik banatzen zuenik bazegoen, esaterako, Katoles osaba deiturikoa, zeinak, goxokiak banatzeko aitzakiaz, kutxa batean haien aspian zerman gorotza eta simaurra erruz botatzen zuen. Alabaina, ezaguna da agintariek historian zehar inauteriei izan dieten destaina, baita beldurra ere, eta urteetan errepikatu diren debekuak eta arau hertsiek galarazi dute Erriberako inauterien ezaugarriak ezagutzea. Ruiz Cabal gotzainak

1892.ean ateratako artzain gutunean esandakoaren arabera, «Inauteria grinarik nazkagarriak eta likitsenak eratzizkitzen dituen labea da», eta horregatik debekatu zituzten. Aitzitik, herriak ez zituen gogo onez onartu murrizapen horiek, eta horretara dator Monteagudon kantatu izan den jota hau: «Aunque no quiera el párroco / hemos de hacer la piñata / aunque luego nos denuncien / y nos den buena tocata». Edota Tuteran kantatu izan den beste hau: «El alcalde de Tudela / nos prohibe el carnaval / no nos ofrece jornales / ni reparte el comunal». Ez zuten, ordea, nahikoa indar jotok, eta gaur egun, Erriberako herri ia guztietan inauteriak ospatzen badira ere, gutxi dira gorde diren ohitura zaharrak. Batzuetan berreskuratu behar izan da galdutakoa, eta besteetan, berriz, zertan zitezkeen asma ezinik, hutsetik sortzea izan da aukeratu bidea.

Cintruenigoko zarramuskeroko heldu dena

Euskal Herriko inauterietan ugari azaltzen diren pertsonailetako bildumari erantsi beharreko beste bat Cintruenigoko zarramuskeroa da. Ohi bezala, etorki ilunekoa, herri jakinduriak Erronkari aldeetik etorritako artzainengan kokatzen du zarramuskeroren sorrera. Bardeetara etortzen ziren Pirinioetako artzainak hemengo herrietara sartzen zirenean, hain zeuden zikin eta zatar, hain zen sarkorra garbitu gabe irautearen kariatz zekarten usain nazkagarria, ezen erriberarrek, anil-hautsa botaz jakinarazten zieten zuten ikuzi



Tuterako zipoteroak gaur ere kalera aterako dira inauteriak hasi direla erakusteko. ARTXIBOKOA

Cascanteko zarrapak: sorkuntza lana

Tuterako zipoteroena berreskuratutako inauteria bada, eta Cintruenigoko zarramuskeroen denboran zehar gehien batez aldatzeko irau duena bada, Cascantekoa, berriz, goitik behera asmatu berria da. Euskal Herriko geografian zehar pentsa daitekeen baino askoz ugariagoak diren horiek bezalako, alegia, Hasiera batean horrelako festa berri bat sortzeko ekar ditzakeen mesfidantza zein oztoko guztiak gauditurik, eta Erriberako herri horretako kultur eragile guztien eta bertako Udalaren arteko elkarlanari esker, betiko inauteri zaharretan oinarria duen beste inauteri berri bat osatu da. Izan ere, gaur 21:00etatik 22:00ak arte aterako dira herriko kaleetan barna.

beharra. Urteetan bizirik irau zuen festak Gerra Zibilekin amaiera doilorra izan zuen, eta 1984.era arte, Peña Cibronek berriz ere berreskuratu zuen arte berderen, erdi galdurik egon da; izan ere, tarteka aterata izan baitira, agintarien aginduari muzin eginez. Halaz guztiz, azkeneko

Gainera, aurreranteko ostira-lean Cascanten anen denak betiko ohituratatu, eta ia seguru da, urte / Cascanteko inauterietako partoria azal-zerakoan, antzatiatik heldu dela esan den delatara hemerroteketan sartu ik behin. Ikuskizun berko, jada zenbait urtetan ateratzen ziren zarrapotero izeneko pertsonaiek dira, gaiztoak eta duten betebeharrak funtsean barrena hirian gertatzen diren gorrorto, gaitz nahiz jaso eta miserien kutxan sartu. Gaur, zarra-

potero horiek laguntzeko, zarrapote izeneko pertsonaiek ere aterako dira, zuriz jantzita eta sorbaldeetatik zein kapeletatik dilindan itsatsirik daramatzaten hamaika xingola eta oihal-zerrenda airean. Gaiteroek zarrapoteroen kalejira jotzen duten bitartean, zarrapoteroak zein zarrapoteak mixerien kutxan sartu beharreko guztiak sartzen ahalginduko dira. Jarraian Foruen enparantzara eramaten dute, eta bertan, pregoia irakurri ostean, jasotako mixeria guztiei amaiera suak emanen die, garrek zipildurik eta kixkaldurik. Segituan, plazan bildutako zarrapotero eta zarrapote guztiek Cascanteko karrika-dantza egiten dute, betiere gaiteroen musikak lagundurik.



estalarik. Ordu horretan kalean mozorrotu gabe ikusten duten edonor anil-hautsez, alabastro-hautsez, gorotzez, edota dena delakoaz zikintzeko eskubidea dute. Azken boladan, ordea, badirudi zarramuskeroen gaiztakerien gradua doi batez laxatu dela, bada, beste urteetakoak berriz ere errepikatu ez baitira. Esaterako, 1984.ean, hots, berreskuratu ziren urte berean, Argako autobusa gelditu zuten, eta barrura sartuz, sulfatagailu batekin txerri-mindaz zikindu zituzten bidaiariak oro. Egun hartan berean, TER izeneko trenan gelditu eta bidaiariak zikindu zituzten.

Tuterako zipoteroak: berreskurapena

Gaur, gaueko 21:00ak aldera, hitzordua finkatuta dute Tuterako zipoteroek aurtengo inauterietan lehenbiziko irteera egiteko. Beste behin ere *Zipotero malandrako que no vales pa moñako* esan ahalko dute Tuterako haurrek. Erriberako hiriburuaren ateratzen den pertsonaierik berezkoena 1989.ean berreskuratu zuten; alabaina, badira aipamen zaharrak pertsonaia honen izaerari buruz. Aurreko mendearen Mesonero Romano idazle espainiarrek Madrilen sortu zuen *Semana Pintoresca Español* izeneko aldizkarian, ospe itzeleko Jose Yanguas Miranda historialari tuterarrak bazuen bere sorterriko inauterien berri naroa eman, baita zipoteroen inguruan ere. 1842.ean agertu zuen artikuluan honela zioen: «Hiri honetan, zipoteroen ohitura zaharrak bizirik dirau oraino. Horiek, inauterietako hiru arratsaldeetan hiriko karrika nagusietara ateratzen diren maskak edo mozorroak dira. Marinel nahiz erronkariak jantzia, baserritarrena nahiz valentziarrarena, edota gerriko gorriarekin praka txuri baten gainetik ongi loturiko kolorezko atorra dira, eskuarki, jendeak erabiltzen dituen mozorroak. Eskuineko sorbaldeatik dilindan eta ezkerreko gal-

● **Gaur, gaueko 21:00ak aldera, hitzordua finkatuta dute Tuterako zipoteroek aurtengo inauterietako lehenbiziko irteera egiteko. Bestalde, Zentronikoko zarramuskeroko inauterietako larunbat-igandeetan aterako dira kalera, 18:00etatik 19:00ak bitartean**

tzarbean, bi ertzak soka batez lotuta dituen buruko-zorroa daramate, eta eskuan, bost arrako makilari heldzen diote mehatxari. Makila horri, soka luze batez, ilezko maskuri handi bat lotu diote, airez puzturik, zipoteroak derrigorrez eraman beharreko babes isklua. Doto-reenak, hau da, buruko-zorroa goxokiz betetzera gozotegian gehienetan sartzen direnak, zalui arintzen dute orduantxe harturiko zama bere senitartekoen balkoietara huraxe botaz. Zipotero hauek, goxokiak balkoietara helarazten salatzaren bitartean, beste batzuek, balkoietara iritsi ez diren goxokiak lurretik hartzen diharduten haurrek, emaztekiak eta baserritarrek bortizki jipoitzen dituzte maskuriekin. Jipoituek, berriz, gustura hartzen dituzte zigorrak, bizkar gainean pilotek bezala punpe egiten dutenak. 1833. urtetik, bai ondoko herrietatik etorritako senitarteko ugariengatik, bai aurreko hamar urteetan festa hau ospatu ezinean ibiltzeagatik, ezin arrakastatsuagoak izan dira inauteriak, betiere oso jendetsuak izan direla onartuagatik ere. Harritzekoa da tuterarrek festa honi dioten zaletasuna, eta Erresumaren Kontseiluak emaniko agindu zorrotzen gainetik, hiriko alkateak laxoak badira, hiritarrek osoki ospatzen dute. Gutxi dira hiru arratsaldeetan ateratzen direnak, batzuk gehiago bietan, baina gehienek zipoteroarena azken egunean egiten dute, bestalde, egunik politena dena. Egia esan, oso ekonomikoa ez den jarduera ezeez, nahikoa nekagarria da errepikatze, ibilbide osoan zehar makilakadak emateaz besoak eta gorpuzta larregi unatzen baita, eta indarrak gorde behar dira ilunabarretik hasita bilkuraz bilkura aritzeko, hamaiketan antzokian hasten den dantzaldira joan arte, non jendea geratzen baita Errauts eguna argitu arte, aurreko gauean egin den moduan bestalde». Honaino Yanguas Miranda jauna.

Esan bezala, 1989.eko otsailaren 5ean eta 8an, larunbata eta asteartea, atera ziren estrelnakoz berreskurapena egin zenetik. Yanguasen testuan oinarriturik, egungo zipoteroen jantziera, nahiz erabat zehazturik ez egon, honakoxea da oro har: praka txuriak, atorra urdina, gerriko gorria, espartin txuriak edo abarkak, eta lastozko txanoak, txapelak edo lau korapiloko zapiak buruetan. Horrekin batera; eta egun osagaririk garrantzitsuen dena, eskuz egindako maska dago, hau da, ez eresia, gehienetan ere igeltsuz egindako kareta txuria. Makila ere eramatzen da, nahiz maskuri gutxi ikusten diren, eta gehienetan, floka berde, gorri eta txuriez eta kaskabildu txikiak apainduta dago. Goxokiak, behialakoan bezala, buruko-zorroan sarturik daramatzate, baina ez balkoietan daudenei bakarrik banatzeko: edozeini ordea.

Egunoan ere, zehaztua dago ibilbidea, San Salvador plazatik Magdalenako elizara, eta hantxe, Erdi Aroko eliza erromaniko ederraren parean, txistorrada handia egiten da, mozorrotuetzako nahiz mozorrogabetuetzako.

Gaurko ibilbide osoan, Gasteizko Kilkir txar-rangak zipoteroen kalejira jotzen du taigabe, Tuterako gaiteroek konposaturiko soinua sarkorria. Guztien aurretik, pertsonaia berri dugu, kapirotea. Zipotero guzien buru zatekeena Otsagiko bobo denaren antzera sartu zen berreskurapenarekin batera. Zintzarriz eta koloreetako flokeez hornitu haga luzanga batekin zipoteroen dantza anarikoa zuzentzen du, aurrera eta atzera; ibilbidean dauden taberna urrietan geldituek egitea ere hari dagokio agintzea. Beharrik ordea urtero aukeritzen den kapirotea, mingaina idor, gehienetan egarriak egoten diren horietakoa dela, bestela...

→ Joxe Miel Bidador

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Cristobal Cortes:

Arras gutxi aipatu tuterar idazle ilustratua

Fernando Perez Ollok lehendabiziko antzerkigile nafartzat jo izan du, eta horrenbestera iritsi gabe, Txaro Perez Artxeak ikerketa sakona egin du egile honi buruz.



Cristobal Maria Cortes Vitas Tuteran sortu zen 1740.eko otsailaren 12an eta ber hirian zendu zen 1804.eko apirilaren 22an. Ilustratua izanik, garrantzizko karguak izan zituen: zenbaitetan zinegotzia eta bestetan alkateordekoa izan zen, baita gorteetako kidea ere 1794. ean eta 1801. ean. Tuterako elkarte ekonomikoaren idazkaria eta zuzendariordea ere izan zen. Fernando Perez Ollok lehendabiziko antzerkigile nafartzat jo izan du, eta horrenbestera iritsi gabe, Txaro Perez Artxeak ikerketa sakona egin du egile honi buruz Zaragozako unibertsitatean argitaratu gabe dirauena.

Egile naroa, asko izan ziren izkiriari zituenak. *Anatomía del amor* izenburuko argitara eman zuen lehendabiziko lana dugu -Madril, 1762-. *Pelayo* trajeria -Madril, 1774- Jovelanosi egotzitakoa izan zen luzaro, eta Tuterako Gonzalez-Castejon jauntxoaren zegoen atzetoki txipian aurkeztu zen. Urte honetan ere, *El tono del gran mundo* izenburuko lana idatzi zuen, gortean zeuden gezurti, gaizkile, eta beselako trepalari eskrupulogabekoen aurka; gaiak berak eragotzi bide zion argitarapena. *Balbina* komedia Madrilen 1778. ean aurkeztu zuen, eta *Ana Bolena*, bi aktotako trajeria lirikoa, berriz, Madrilen ere 1781. ean; honen italiarazko aldaera bazegoen, ezin arrakastatsua izan zena. *Atahualpa* elaberría Madrillgo Udalak saritua izan zen 1784. ean. Loperi jarraikiz, *Atahualpa* zeritzan tirano inkaren istorioa dugu. Urte berean *El Conde don García de Castilla* eman zuen argitara Madrilen, eta 1785. ean Madrilen ere *La venganza* trajeria.

Nafarroako Erribera ia gehiena, luzaro, Tarazonako apezpikutegiaren menpe egona da eliz kontuetarako. Iruñetik, halere, saioak izan baziren, Tuterako lurraldea bere



gain hartzeko, XII. eta XIII. mendeetan adibidez. Halaz guztiz, Tuterak beti aske izan nahi izan zuen, apezpiku-hiri solla, 1783. era arte lortuko ez zuena. Harrigarri xamar agitzen da, dozena bat parrokia baino askoz gehiagorik ez zuen lurraldeak elizbarrutia izatera iristera, mila parrokia baino gehiago zituen, esaterako, Arabak Kalagorriko elizbarrutitik banandu ezinean zebiltzen. Halaz guztiz, jakin badakigu, saioak, Euskal Herriko beste eskualdeek ere egin zituztela. Tuterako apezpikutegi berria sortu zenean, Cortesek *El triunfo de la paz* idazkia agertu zuen Madrilen, Joatxin Ibarrenean, 1785. ean. 90 orrialdetako festen oroitegi hau lau kantetan banaturik datorkigu. Lehendabizikoan Tuterako historiari ihardun zuen, Tubalen etorrera aipatuz, liberal batengan harrigarri xamar gerta litekeena: «El patriarca Tubal, de Noe nieto / Con suerte venturosa / Se internaba en la tierra despoblada / Hasta hallar algun sitio ameno y quieto / Que fixase el deseo / Ya la fragosidad del Pirineo / Le había dado paso y descendiendo / Hacia la tierra llana, descubría / Las apacibles márgenes del Ebro / (...) Quitando la elección a su albedrío / Y en fuerza al placer que le desvela / Casi por precisión fundo Tudela». Besteen artean, lan honetan Larramendi bera aipatu zigun, euskara arrotz ez zuelako seinale: «Porción de la Vasconia, que heredera / De aquellos primitivos pobladores / Supo guardar su original lenguaje».


Aurrekoarekin hala edo nola

loturik, *Christobal* latinez ongi tajaturiko 324 exámetro-tako artzai egloga eman zuen Iruñeko Antonio Castillarenean argitara 1786. ean. Honetan Tuterako lehendabiziko apezpikua izan zen Franzisko Ramon Larunbe Mondragoni omenezkoak eskeini zizkion: «Tutelsenem pastorem laudat sacris gregi suo manibus doctrinae panem impertiente». Larunbe hau Ilunberrin sortu zen 1738. eko apirilaren 8an, eta Salamancan ikasi ostean, Segovia eta Sevilla aldeko eliz nagusietan garrantzizko ardurak bete zituen, Alfaroko abadea izan arte. 1784. eko ekainaren 20an aita santuak prekonizatu zuen, eta handik bi hilabetetara Tuterako apezpiku sartu zen. Tuteran hil zen 1796. eko irailaren batean, eta hango eliz nagusiaren koroan lurperatuta dago.

Tuterako herriaren lagunek 1799. ean eginiko erakustaldi literarioetan, *Egloga entre Fileno y Menandro* aurkeztu zuen. 1800. ean berriz, Madrilen, ohi bezala, estrainezko jokatu zen bere Sancha de Navarra trajeria, eta *Epónima o el amor conyugal* trajeria klasikoa Madrilen antzeztu zen 1801. ean estrainezko ere. Erroma klasikoan kokaturik, Langresen, Vespasianoren garaian hain zuzen, neoklasizismoaren elementuak erruz agertzen dira: Virgilioren aipamenak, Franzian kokapena, unitateen zainketa,...; gaia ere ezin aproposagoa dugu: Eponimaren sakrifizioa bere senararen Sabinori dion fideltasunagatik, adimen ilustratuek, oro har, emazteaz zuten jukuarren erakusgarri zehatza.

etorri ahalean

Patziku Perurena



Zelten antzekoak

Euskal eromantizismoaz eta nazionalismoaz geroztik, erruz hitze gin du euskaldunak zeltei buruz, gure kontu zahar eta istorio asko haiengandik jasoa ditugula serio demonio aitortuz. Baliteke.

Europa Zaharreko gizalde hartaz garbiro hitzegitea, ordea, zailsko egiten da. Zergatik? Zelten zaizkirik jakitunena eta denen buru egiten zuena, *druida* alegia, ezin baitzen izkribuz baliatzea; usario eta sineste guziak ahoz belarri irakatsi beharra zeukan.

Hala, besteren izkribuetatik ikasi dugunaz, badirudi, K.a. ko bigarren milaldian Alemania inguruan kokatu zen zaizkia dugula zeltena. Handik hasiko zituzten aurreneko sarraldiak eta erasoaldiak Europan barrena. Aurrena Britaniar Irletaruntz sartuko ziren. Hurrena, Galia eta Iberia alderuntz, eta azkenik, Erroma eta Greziaraino.

K.a. ko bigarren mendearan azken aldera ordea, ipurdiko haundiak hartuak ziren. Iparraldetik germaniarrek atzeraziko zizkion muturrak Gallako mugetaraino. Erromak, beste aldetik, bere gudarosteak hedatuko zituen, zelten burujabetsuna Irlandako lur muturretaraino ixtituz. Horregatik gortetzen dira egun Irlanda aldean, zelten aztarrenik nabarietak eta sinesgarrienak.

Gizalde hark, ez zigun, egia esan, gizonaren munduko izateaz filosofia eta pentsamendu sakon haundirik utzi. Horregatik, behar bada, jendaje halamodukotzat hartu zuen greziarrek. Platonek «ardankoiak, basatia eta haserrekorra» zela zioen zelta. Aristotelek «fiakatzak, krudela, eta gizatasunik batere gabekoa» zela. Bazuten beraz, greziarren gogoko ez zen jite franko.

Greziarrek, buru argiko jende noble eszeptikoa zuten gogoko; eta, zeltek berriz, indar itxurak egiten zekien jende oro, nahiz izpirituz koldar eta bildurti hutsa izan, horregatik go-

gortzen zituzten iheltsos kalparra eta bizarra, beren irudi basatia areagotzeko, Asterix eta Obelix lekuko.

Zelta, beraz, Donibaneko Joananes Uharteren antzera esateko, entendimendu eskaseko baina irudimen haundiko zaizkia zela esan genezake, eta batez ere eskulanean trebe. Burnia eta zura lantzen, eta beste mila modutako eskulanetan aurrendari izan genuen. Haiek erakutsi ziguten galtzak jazten; haiek ferratu ziguten aurreneko zaldia; ardankoi haiek egin aurreneko upelak eta pitxerrak; haiek para aurreneko aldiz peririlak lurra lantzeko goldeari.

Gure mitomaniak eta kontu haundiak alde batera, badirudi, zelten gisako azken europarrak garelako euskaldunok: diziplina zibilik eta militarrik ez zutelako galdutuz beren agintea; bien bitartean, erlijio esoteriko ergel samar batek mantendu zituen nolahalak elkarturik. Gorputz arimen zinezko indar nobleak baino, gorputzez indar itxurak egiteak gehiago liluratu zituen (zertako iheltsotu bestela kalpar bizarrak?) Apaindurak eta eskulanak xoraturik zeuzkan. Agrakoak, irudimen arinekoak eta ardankoiak ziren, baina, entendimendu urrikoak. Zinezko gauzak axalez itxuraldatzen eta apaintzen, haurtoak bezala libbertitzen ziren.

Nork esan niri, egungo euskaldunak beste hainbestetsu ez direnik. Zerk eusten dio, bada, bizirik herri honi? Zer mitifikatzen da gure artean nazkatearainokoa, bertute zelta horiek ez badira? Nork irudika lezake, zelten antipodetako greziar pentsalari noble eszeptiko haiekakoren bat, euskaldunon artean erroak egiten? Ezagutzen dut halako izpiritu noble-dun franko, bidean zokoraturik eta hebaundurik gelditu dena. Mirande baten izpirituak, esate bateko, negar egiteko gogo eman izandu dit beti druidaz jantzia ikustean. Baina hartainokoak izan, gure seneko indar ezkutu nahastuak.

Ziria

• Motxorrosolo •

PNB

UNEA EGOKIA DIRUDI. SAREA EGIN ORDEZ, SAREA BOTA. EHIZA EGITEKO barrutiak ugariak dira, usadioen defenditzaileena konparazio. Alta, antzinako larreak biziki estimatzen dituzte, sorogainak ez diren horiek. Dirua ez zate faltako, orain dela lau urteko kanpainen, Nafarroa Garaiko kanpainen bozka bakoitzetik hegoaldeko bi mila ogerleko (400 libera) xahutu zituzten publizitatean, milioi horien puskarik handiena betikoak patrikaratu zituen, jakina denez, Gaztela aldean PNB gordina da.

Idoia Salsamendi  Psikologoa

«Psikologoak kirolariaren beharrak antzeman behar ditu»

Iruñeko Gaztediaren Etxean egin diren jardunaldietan kirolaren psikologia izan da mintzagai aste osoan. Idoia Salsamendi psikologo lizarratarak psikologiak kirolean duen eraginaz hitz egin zuen astelehen arratsean. Salsamendiren iritziz, prestakuntza fisikoa ez ezik, psikologikoa ere erabakigarria da lehiaketetan emaitza onak lortzeko. Kirolariari biak uztartzen lagundu behar omen zaio.

URDURI BAINA GUSTURA ARITU zen solasean Idoia Salsamendi. Adierazi nahi duena esatea kostatu arren, gogotsu erantzun zion itaundutako guztiori. Bere lana gustuko duela nabari zaio.

■ Nola eragiten du kirolariarengan psikologiak?

Psikologiak hiru arlotan du eragina kirolariarengan: haren errendimenduan, osasunaren hobekuntzan eta ariketa fisikoaren praktikan.

■ Noiztik uztartu dira psikologia eta kirola?

Espainian psikologia lanbide bezala 1968an ezarri zen, eta geroztik garatu egin da. Psikologiako lehen ikerketak 70eko hamarkadatik aurrera egin ziren Espainian. Nolanahi ere, Estatu Batuetan eta Sobiet Batasuna izandakoan 1950ean jadañik egiten zen goi mailako kirolarientzat prestakuntza psikologikoa. Ikeretzen ziren atletaren funtzionamendu perfekturako gunea, azkartze mailak eta erantzun motak. Egun, Espainian ikerketa asko egiten ari dira, batez ere kirol medikuntzarako zentroetan dauden laboratorioetan psikologoek kirolean nola eragin azterten dihardute. Nafarroan ez eze, Espainian ere kirol psikologo gutxi daude. Bidea hasten ari den alorra da.

■ Kirolak eragina du kirolariaren hobekuntza psikologikoa. Zer egiten du psikologoak kirolariaren errendimendua hobetzeko?

Gauza bat da kirolariaren errendimendua eta beste bat haren izakera eta pertsona. Psikologoak kirolariaren beharrei antzeman behar die momentu ahulenetan eta hor egon laguntzeko. Une jakin batean bakarkako jarraipena egin behar izanez gero, horretan ere lagundu.

■ Psikologoak kirolariaren eguneroko entrenamendua jostaketa bilakatu behar duela



● LUIS AZANZA

aipatu duzu hitzaldian. Kirolariak bere lana egitean izaten duen urduritasuna eta presioa nola saihesten da?

Psikologia portaeraren zientzia den aldetik, pertsona gogobeteta eta pozik utzi behar du. Kirolariaren bizitzan helburu bakarra errendimendua ez izatea lortu behar du. Errendimendua emateaz gain, kirolariak osasuntsu

egon behar du, psikologikoki orekatua, egiten duenarekin kontent. Egiten duenarekin ongi pasatu behar du kirolariak.

■ Beraz, arlo fisikoa psikikoa bezain garrantzitsua dela esan daiteke.

Bai. Esparru psikologikoa ezin daiteke fisikotik banatu. Hori dela eta, kirolean gero eta gehiago hartzen da aintzat psikologoaren

soslaia

Idoia Salsamendik 29 urte ditu eta Lizarrako ikastolan egin zituen lehen mailako ikasketak. Euskal Herriko Unibertsitatean ikasi zuen Psikologia. Gaur egun UNEDen hasi zuen Kirol Psikologia masterraren bigarren urtea bukatzen ari da.

Gustuko du oso kirol psikologiaren esparrua eta horretan lan egiten jarraitu nahi luke.



Dena den, guztia ez da kirolariaren psikologia ikertzea, egin ere egiten baitu kirola beta duenean. Beti izan du gustuko, psikiki zein fisikoki onura sumatzen duelako. Lasterka egitera eta gimnasia joaten da, eta ahal duen asteburu guztietan mendira hurbiltzen da txangoak egitera.



Ikasteaz gain Nafarroako Kirol Orientabide Zentroan eta Patinaje Federazioan egiten du beharra. Iruñean abuztuan egiten den Abiadurazko Patinaje Mundu Txapelketa prestatzen ari da Espainiako selekzioa osatzen

duen hamasei kideekin, horietatik hamalau nafarrak.

lana, baina ez psikologo klinikoa-rena, baizik eta psikologoa tekniko moduan. Masajista, fisioterapeuta edota entrenatzailea kirolariaren arlo fisikoaz ardurtzen diren moduan, psikologoa

haien buruko osasunaz ardurtuko da.

■ Nafarroako patinaje selekzioarekin zabilta lanean. Nola hasi zinen horretan?

Kirol psikologiako masterraren bigarren urtea egiten ari naiz Madrilgo UNEDen (Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala). Praktikak non egin nik bilatu behar nuen, eta Nafarroako kirol medikuntzako zentrotik pasatu nintzen. Psikologoekin ez zutela lan egiten esan zidaten, baina Iruñean aurten patinajeko mundu txapelketa egin behar da, eta hori dela-eta patinaje taldean kirolariaren arlo psikologikoa landu nahi zutela esan zidaten. Lehenik eta behin, bakoitzaren azterketa bat egin nahi zuten. Jakin nahi zuten nola zegoen momentu horretan kirolari bakoitza. Azterketa egin ondoren, hitzartu genuen elkarlanean aritzea astean hirutan eta zenbait estrategia aplikatzen hasi.

■ Zer lan egin duzu?

Entrenamendu guztietara ezin naizenez joan, ebaluaketa denboraren arabera egin dut. Galdetegi bat erabili nuen, CPRD (psikologia ezaugarriak kirol errendimenduari lotzen duen galdetegi). Galdetegiak kirolariaren aldagai guztiak neurtzen ditu: azkartzea, autoestima, estresaren kontrola, talde kohesioa eta arreta. Kirolari bakoitzak bere burua nola ikusten duen ikusten da galdetegiarekin, eta horren arabera esparru bat edo bestea landuko dugu.

■ Zein da hurrengo pausoa?

Orain, astean hirutan, bi hilabeteko formakuntza egitaraua egiten ari naiz. Zenbait gauza erakusten ari naiz: zer den kirol psikologia, zertan lagundu dezakedan, zertaz atera dezaketen etekina, eta, batez ere, autoanalitiko teknikak erabiliz bakoitzak bere burua ikuskatzen. Aldi berean, lasaitzeko teknikak eta irudimena praktikan jartzen erakutsi behar dizkiet, gero euren gutxinaka, beren entrenamendu egitarauan sar dezaten.

■ Kirolariak bere jokaera ebaluatzen ere ikasi behar duela diozu. Erabakigarria izan daiteke hori lehiaketan?

Bai, funtsezkoa da. Psikologoa ez da beti kirolariaren ondoan egonen. Berak jakin behar du zer estrategia erabili hutsuneak kontrolatzeko.

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Sua, gasolina eta gazteak

KALE BORROKAN ARITZEAZ AKUSATURiko Nafarroako 26 gazteren kontrako eskari fiskalak agerian utzi du legearen moldagarritasuna. Irizpide politikoaren arabera erraza baita usteko dotorezia handiko lapurrek gure karrketan paseatzen ikustea. Sistemak funtzionatzen du.

Gaztea izatea, ordea, bekatu larria da. Ez, ez, barkatu, ezin da orokortu: badira gazteak eta gazteak. Batzuk, auskalo zenbat, zintzo, lasai, arduratsu eta ikasle onak dira. Otzanak. Horrexegatik guapo eta jatorrenak dira. Agintari heldu-zaharren mirespena sortzen dute eta umetxoeren eredu behar dute izan. Gazteria zaharra.

Baina bestelakoak ere badira. Ez dakigu zenbat diren, baina diotenez oso gutxi dira, zalaparta handia sortu arren. Nolakoak? Aurreko multzoan sartzen ez den oro hemen koka genezake. Ez dira erraz konformatzen, telebista ez dute gogoko, ez dute soldaduskara joan nahi, ez dute lanik, ez dute erdaraz hitz egin nahi eta abar. Antza denez, hala ikusiarazi nahi digutelako, «ez» da gehien darabilten hitza. Baina... EZ.

Ez. Azken multzo honetako gazte gehienak ari dira zerbaite eraiki nahian, dagoena ez zale gustatzen eta aldatu nahian dabilta. Gazteria berria. Etorkizuna eraikitzeko molde ezberdinen artean, horietako batzuk kale borrokan aritzen dira. Zenbaitentzat miresgarria da erakusten duten adorea; beste batzuen ustez, aldiz, okerturik dabilta eta beste borroka batzuk oztopatzen dituzte. Edozein modutan ere, argi dago arrazoi batzuk ikusten dituztela egiten dutena egiteko. Moldeak izan daitezke ezberdinak, ez arrazoiak.

Zenbaitzuek ordea ez omen dute horren argi. Eta saiatzan dira irtenbideak bilatzen bizitza osorako kartzela mehatxuekin, atzean dauden arrazoi erreparatu gabe. Bizirik dagoen suari, ura ordez, gasolina gehiago botatzen, alegia.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Alzoain:** Los Cronicos eta Brillantinas taldeen kontzertua dago gaur, 23:00etan, Artaisa aretoan.
- **Iruñea:** Akelarre tabernan Leihotikan taldeak joko du datorren asteazkenean, 21:00etan.
- **Iruñea:** Sarasate Orkestrak kontzertua eskainiko du gaur, 20:00etan, Gayarre Antzokian.

ANTZERKIA

- **Zizur Nagusia:** Trokolo taldeak *Tantaz tanta* lana taularatu du Kultur Etxean datorren astelehenean gaztelaniaz eta asteartean euskaraz. Bi emanaldiak 17:30etan izanen dira eta sarrerak 250 pezeta balio du.

ZINEMA

- **Iruñea:** Karrikiri elkarteak antolatutako zinemaldiko egitarauaren barruan *Robin Hood* eskainiko da gaur Golem zinematokian 20:00etan.

ERASKUSKETAK

- **Tutera:** Nafarroako basoak erakusketa ikusteko aukera dago Castel Ruiz Kultur Etxean. Erakusketa datorren otsailaren 28ra arte dago zabalik astelehenean larunbatera, 19:00etatik 21:00etara.
- **Zizur Nagusia:** Joaquin Ahechuren argazkiak ikusteko aukera dago heldu den otsailaren 8a arte.
- **Tafalla:** Corrado Masacci italiarraren *Txotxongiloen artea* erakusketa ikus daiteke hilaren 26ra arte Kultur Etxean.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Benetazko eta gezurrezko tolerantzia hitzaldi

zikloa antolatu du Ateneoak. Guztira lau hitzaldi izanen dira. Datorren astelehenean Xabier Etxeberria Etika irakaslea Tolerantzia eta intolerantziaren mintzatuko da. Asteazkenean txanda Jose Ramon Rekalde Sistema Juridikoetan katedradunarena izanen da. Rekaldek Intolerantzia eta nazionalismoak izanen ditu aipagai. Ostegunean, berriz, Tolerantziaren eta demokraziaren ariko da Javier de Lucas Zuzenbidearen Filosofian katedraduna.

Zikloa datorren ostiralean bukatuko da. Carlos Thiebaut Filosofia katedradunak Jasan, onartu eta banatu solasaldia eskainiko du. Hitzaldiak 20:00etan izanen dira Iruñeko Kutxaren egoitza nagusian (Armada Etorbidea 2).

- **Iruñea:** Hitz hutsez ahanzia oroitz poesia errezitaldia emanen du Joxean Arze idazleak datorren asteazkenean, hilak 25, 20:00etan, Erraldoren Txokoa.
- **Ollaran:** Zuhaitzaren eguna

ospatuko da etzi, eguerdiko 12:00etan, Ollor herrian.

- **Gares:** Joxe Miel Bidador filologoak *Inauteria, aitzinarekin lotzen gaituena* hitzaldia eskainiko du datorren astelehenean, 20:30etan, liburutegian.

- **Iruñea:** Nafarroako Kirol Elkarteak Mendi Eskolak Ozako oihanera ibilaldia antolatu du Pico Rojo mendira igotzeko eta Candanchurainoko txangoa egiteko etzi. Informazio gehiago 22-43-24 telefonoan lor daiteke.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini.....

The lucky nabartzalea.



Nire aita Petroneko bordan sortu zen. Bistak ematen zuen guztia egun batean berea izanen ez zela esan zion etxeko batek. Nevadara etorri, astoak bezala lan egin, eta orain, bistak ematen duen guztia geurea da. Amerika maizterren mendekua da.

ATALOHIA
2. UNAI-PRAKAK